

# TOPAKETAREN KRONIKA

Angosto, 2019ko azaroaren 9a



## PASIOTAR TOPAKETA

**Familia bat izatearen dohaia bizi  
Laikoak, monjak eta erlijiosoak**

Pasiotar Familia osotzen dogunon ordezkariak, gure espiritualitatea bizi eta alkarren barri jakiteko, topaketa bat eratu eban Angoston, azaroaren 9an. Batez be Euskadiko, Cantabria eta Asturiasko alkarteentzat eratu zan batzarra.

### Parte hartzaileak

S. Paulo Kurutzekoaren monja Pasionistak (Bilbo eta Irun), eta alkarte ezbardinetako erlijioso eta gurekin loturaren bat daben laikoak: Mieres, Santander, Deustu, Orue, Angosto, Urretxu eta Irun. Alkartutakoak 76 izan ginan.

### Zer egin genduan?

Angostoko Amaren aurrean, sarrerako otoitza. Eta otoitz giroan, Jesusi jarraitzea eta Pasiotar izatea zer dan gogoratu. Banan-banan aurkeztu ginan eta Pasinoagaz konektatuta jarraitzeko gogoia agertu. Paulo Kurutzekoaren karismeak, kurutzea onartuz, pozik bizi eta zoriontsu izatera eroan behar gaitu. Goizeko azken orduan anai-arreben arteko Eukaristia ospatu genduan. Bazkaria aprobetxatu genduan solasean jarraitzeko eta 5ak aldera bakotxa bere etxera.

**Eskerrik asko**, parte hartu zenuen guztioi. Jesusen nekaldiak bizirik jarraitu daiala gure bihotzetan; eta munduaren negarrak, poz bihurtzen ahalegindu gaitzela.